

01 HELBURUAREN ARGITASUNA

Helburua da deialdia egiten digun asmoa; horren bitartez, Administrazio Publikoaren eta herritarren artean lankidetzan lan egitea erabaki genuen.

Helburuak kohesionatu egiten du, azpimarratzeko fokua definitzen laguntzen du, pertsonak ildo berean lan egin ahal izatea errazten du eta, aldi berean, beste pertsona batzuk proiektuan sartzeko eta modu autonomoagoan eta erabakiak hartzeko argitasun handiagoarekin lan egiteko zubi gisa balio du.

Helburua 'helmuga' edo 'xedeetatik' haratago doa; zehatzagoa eta hurbilagoa da egiten parte hartzen duenarentzat 'misiorekin' ideia baino, zurrunagoa eta urrunagoa baita.

Helburu bat egitea lan konplexua da. Jarraian, gure ekimenen helburuaren argitasuna baloratzen eta/edo zehazten lagunduko diguten zenbait gako errepasatuko ditugu.

MUGETATIK IBILTzea

Helburu bat zehaztea eta babestea aldatzen uztea bezain garrantzitsua da. Arreta eskaini behar zaie aurkezten diren erroka berriei eta prozesuaren helburuak zabaltzen dituzten begiradak sartu behar dira.

Zure proiektuan, nola eguneratzen duzue parte-hartzaileek antzemandako seinaleak? nola barmatzen dituzue ikuspegi berriak? nola erantzuten diozue planifikatzearen eta kontrolatzearen arteko orekari, aldaketetan eraginez?

TENTSIOK ONARTzea

Gehiegizko jarrerari eta kexa-diskurtsoei muga jartzea bateragarria da prozesurako funtsezkoak diren ondorez entzutearekin. Jarreraren atzean dauden premiak uler ditzakegu eta prozesuaren zerbitzura jarri.

Zure proiektuan, nola kokatzen zarete modu proaktiboan kexa-ahotsak indartu gabe? nola ematen diozue lekua gatazkari proiektuaren ikuspegia zabaltzen jarraitzeko?

PARTEKATUA ETA GUZTION ONERAKO DENA

Helburu bat modu kolaboratiboan lantzeak parte-hartzaileek beren helburua bezala sentitzen, garatzeko ahalegina egin dezaten eta diskurtso argia eta koherentea transmititu ahal izan dezaten laguntzen du.

Zure proiektuan, nola ekin diozue helburuaren definizioaren solasladiari? zer estrategiak balio izan dizue guztion onerako ariketa izan dadin? nola kudeatu dituzue banakako itxaropenak?

POTENZIALAK ETA EMERGENTEAK ARTATzea

Prozesua izaki bizidun bat, nortasun propioa duen zerbaite bezala entzutea proposatzen da; denbora eskaini behar zaio une bakoitzean behar duenarekin konektatzeko hartzen ari den forma behatzeari eta guk zerbitzura jarri behar dugu.

Zure proiektuan, nola txertatu duzue eragileen potentzial guztia? nola bideratzen zarete aurrera egiteko seinaleetara? Zer mekanismo dituzue errealitate berrien aldaketei erantzuteko?

HELBURUAREN ARGITASUNA ETA FOKUA

Proiektuaren esparrua, mugak eta konpromisoak argi eta modu gardenean definitzeak fokua jartzen eta prozesurako egokia izan daitekeen edo ez bereizten laguntzen du. Itunak eta sinergiak ehuntzen laguntzen du argitasunak.

Zure proiektuan, nola izan da prozesua helburua modu operatiboan definitzeko? nola laguntzen dizue hori ulertzeak inbertitutako energia zuzentzeko? nola laguntzen du haren argitasunak erabakiak hartzen?

TIP-AK

Ezaugarri hori hobeto ulertzen eta garatzen lagun dezaketen erreferentziak eta/edo erremintak.

KONPLEXUTASUNEAN ORIENTATzea

Hasteko, aurrean ditugun arazoak ulertu behar ditugu eta, batez ere, aurrean ditugun arazoaren inguruan dugun pertzepzioa ulertu behar dugu. CYNEFIN ereduak (D. Snowden) aukera ematen digu orientatzeko eta zein arlotan mugitzen garen identifikatzeko (bistakoa, zaila, konplexua, kaotikoa eta -desordenatua-) eta ekintza-estrategia batean oinarritzeko.

Kohesioarekin eta lerrotzatzearekin loturiko helburua eraikitzea konplexuaren eremuan kokatzen da. Bertan, errokek gure ekintzek dituzten ondorioei erreparatuz kudeatzen dira. Etengabeko arriskua, ziurgabetasuna eta ikaskuntza eskaintzen dituzte.

BATERA SORTzea HELBURUA LABURTZEKO

Egoera batzuetan, modu emozionalagoan konektatzeko partekaturiko erantzun bat laburtzen laguntzen du. Helburuari dagokionean, duen konplexutasuna dela-eta, baliteke hitzak labur geratzea. Beraz, beste lengoia batzuei lekua egiteko unea da.

Lankidetzarako proiektuaren fokua eta prozesuan zehar ikasitakoa modu sinbolikoagoan kontuan hartzeko moduaren adibide bat Getxoko Udalak herritarrekin batera bultzaturiko "Bentanoa" proiektua da. Herritarren antolakuntzaren logotipoa prototipatze-tailer batean eraikitako objektua izan zen, helburu komun baterako ikuspegi ezberdinak elkartuz lan egiteak duen potentziala aipatzeko.



DEKALOGOA ETA HIZTEGI PARTEKATUA

Gure ustez, funtsezkoa da prozesuan zehar entzuten joan garen hitz eta esamolde literalak erabiltzea. Pertsonak islatuta eta entzunak sentitzea. Era horretako lankidetzaz-prozesuetan oso erabilgarria izan ohi da dekalogo edo antzeko bat sortzea ideia nagusiak eta argiak jasotzeko. Zerrrenda horrek baterako eraikitza-ian baten emaitza izan behar du, praktika zehatz eta inspiratzaileekin konektatuta egotearekin batera.

GLOBALTASUNETIK (BER)RENFOKATzea

Ibilbide luzeko prozesuetan, ziurrenik, helburuarekin konektatzeko beharra izango dugu. Horretarako, ariketa bat proposatzen dugu: denbora-lerro bat marraztea, prozesuaren historikoari buruzko informazio osoarekin, ondoren, geure buruari galdetzeko etorkizunerako zer ikas dezakegun. Zeren falta sumatzen dugu? Zer errepikatzen da? Zikloak edo faseak ikusten ditugu? Zer dakigu ondo egiten? Elkarriketak ireki behar ditugu jarrera partzialetatik ateratzeko eta proiektuaren potentzialak galdetzeko. Lan honetan ondorengo galdetzea lagungarri izango dugu: Zer esango luke proiektuak bere helburuak, hitz egiterik izango balu?

